

OARGUI'REN SARIKETAKO LENENGO SARIA

ANDRE MARIAREN DEIKUNDE-IKUSTALDIA

Udaberri. Egunsentia, barne-atsegingarri. Galilea irriparrez, loretsu, Nazaret lilluragarri. Itxas-aizea laztan biguñez palmondoetan abeslari.

Etxetxo bat atea zabalik. Neskatxa bat loretegira dager: Andre Mari, liñu zuri ta ederrez jantzirik. Aizearen leunez buru-estalkia jolaslari dabilkio. Urrezko arrosa ondoan azken izarñoa poz-dardaraz ikusi ala, Mari Jainkoari otoizka asi zaio.

Bat-batez, argi dirdiratsu batek estaltzen du... Gabriel Goiaingerua aurrez-aurre itzlari:

—Agur Mari, graziaz betea, Jauna da zurekin. Bedeinkatua zu andre guztien artean!

Birjiña Maria zearo arritu ta txunditurik dager. Aingeruak, bere biotzikara nabaituaz, lasaitzen du:

—Ez bildur izan, Mari, Jainkoak atsegin zaitu-ta. Jaunak aurtxo bialduko, eta Jesus izena jarriko diozu. Jainkoaren Seme deituko diote, Gain-Gaiñekoaren Seme! Zure lengusu Elisabetek ere aurra izango dula, esan bearra dizut.

Mari'k orduan:

—Ona emen Jaunaren mirabea, gerta bekida zuk esana!

Aingeruak, Mariren gozo-apaltasun izugarriaz zoraturik, argi-egatan utzi zuan... Eguzkiak lenengo printza oriak jaurtitzen dizkio Nazareti. Egunsentia ederrenetan eder...

Mari'k bere barnean ixil-ausnartzen dirau. Ain zuzen, orrelako gerta erarik ez-baitzaio iñori esaten. Elisabet'gan du Marik bere gogoa, ta ikustaldi baterako gertutzen ari da: bai ba, aren zorionaren erdikide ta laguntzaille izan nai...

Eta ara Marik Nazaret utzi. Elisabet bere senar Zakariasekin Ju-

dean bizi zan, mendi-erri baten, Ainkarem izenez. Toki au ezberdiña dezu, masti ta oliñdoz esirik. Elisabet'en poz-atsegiña Mari berean ikusirik! Bearbada aldi luzea alkar ikusi ez dutela; gaiñera Elisabet'ek, goiargiturik, Mari Mesiaren Ama dala jakin daki, ta Gogo Gurenak arturik:


—Bedeinkatua, dio, zu emakumetan! Nor naiz gero nere Jaunaren Ama etorri datorkidan? Bai doatsu zu, sinistu baitituzu Jaunak zuri esanak!

Birjiña Marik:

—Ene animak Jauna goresten du, ta nere biotza pozez dardar Jainkoagan, Berak mirabe onen apaltasuna begitan izan baitu...

Mari, bere lengusuarenean iru illabete igarota, Nazaretoko pakera biurtzen da.

ITURRIA'tar Jose'k



IDAZLE APAL ETA PRESTU GUZIAK IZKERA ARGI, LAU TA
ADI-ERRAZA ERABILTZEN DUTE GEIENETAN. INDI-OLLAR
ANTZEKO BURU-ARRO TA KOPETA-BELTZAK, BERRIZ,
IDAZTANKERA ZAIL ETA ILLUNERA JOTZEN DUTE BETI.

Vossler.